AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5295

264/2012 DEKRETUA, azaroaren 27koa, Ion Gurutz Echave Aranzabal jauna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide izendatzen duena.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko Legearen 6.3 eta 7.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz eta Batzorde horrek erabili behar dituen gaiei buruz duen gaitasun profesional egiaztatua kontuan hartuta, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko otsailaren 27an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Ion Gurutz Echave Aranzabal jauna, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide izendatzea.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 27an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.